

ar**o**a

euskara indarberitzeko
eta euskaldunok ahalduzko
marko estrategikoa

Euskararen Plan Estrategikoa Zarautzen

AROA, 2025-2034

Zarautz, 2025eko otsaila



Aurkibidea

1. SARRERA	3
2. METODOLOGIA	4
3. DIAGNOSTIKOA	6
3.1 EUSKARAREN EGOERARI BURUZKO DATUAK	
3.2 GALDETEGIAREN EMAITZAK. PERTZEPZIOA	
3.3 AZTERKETA KUALITATIBOA	
4. AROA 2025-2034	23
4.1 NAHI ESTRATEGIKOA, MISIOA ETA IKUSPEGIA	
4.2 ARDATZ ESTRATEGIKOAK	
Gobernantza	
Jarrera/Motibazioa	
Ezagutza/Gaitasuna	
Erabilera/Elkarreragina	
Ikerketa/Sistematizazioa	
Komunikazioa/Hedapena	
5. KOORDINAZIOA ETA EGITURA	41
6. ADIERAZLEAK	42
7. GENERO IKUSPEGIA	43

1. SARRERA

Zarauzko Udalak 2004an onartu zuen herri mailako euskararen plan estrategikoa: Euskara Biziberritzeko Plan Estrategikoa. Oraingo hau bosgarren plana izango da. Udal barruko Erabilera Plana onartzearekin batera egin da plan estrategikoa. 10 urteko indarraldia izango du (2025-2034), eta honako hauetan oinarritzen da: Toki Erakundeei buruzko 2/2016 Legea; AROA euskara indarberritzeko eta euskaldunok ahalduntzeko Marko Estrategikoa; Zarautz 2030 Plan Estrategikoa; eta 2023-2027 Agintaldi Plana.

- **Toki Erakundeei buruzko 2/2016 Legea:** udalerriei eta tokiko erakundeei eskumen propioak ematen dizkie euskararen erabilera eta normalizazioa sustatzeko.
- **AROA Marko Estrategikoa:** lankidetzaren proposamen honen helburua da 2024-2034 epean euskara indarberritzea eta euskaldunok ahalduntzea.
- **Zarautz 2030 Plan Estrategikoa:** 2030. urterako Zarautz herri modernoa, jasangarria eta inklusiboa izatea du helburu; zarautzartasuna eta euskara herri identitate eta erreferentzia gisa sustatu nahi ditu.
- **2023-2027 Agintaldi Plana:** gobernu taldearen eta udal departamentuen lan eta jardura nagusiak finkatzen ditu, eta bere helburuen artean dago Zarautz euskararen arnagune eta erreferente izatea.

Zarauzko Udalean Euskararen Erabilera Normalizatzeko Plan Estrategikoa 2023-2027: Udal langileek eta zerbitzuek euskaraz komunikatzeko eta lan egiteko neurriak biltzen ditu, eta herritarrek udalarekin harremanak euskaraz izatea sustatzen du.

Plan hau, bestalde, testuinguru zabalago batean kokatu behar da; horregatik, ezin aipatu gabe utzi azken urteotan euskararen arloan izandako aldaketak: administrazioaren eta euskalgintzaren arteko elkarlan berria; Euskaraldia, hizkuntza-ohituretan eragiteko egitasmo sozial erraldoia; hizkuntza-teknologietan egindako aurrerapenak eta,aldi berean, adimen artifizialaren garapena; euskararentzat oinarri garrantzitsu diren lege eta dekretu onartu berriak; pandemiak eragindako aldaketak, etab.

Zarautzen ere nabari dira aldaketak: asko aurreratu dugu arlo batzuetan —hala nola, administrazio eta esparru formaleko erabilera—, baina erronka berriak sortzen ari zaizkigu bidean; adibidez, beste jatorri batzuetako herritarrengana nola hurbildu, hizkuntza-aniztasuna eta, oro har, dibertsitatea nola kudeatu... Eusko Jaurlaritzak AROA marko berria sortu du, datozen hamar urtetarako gizarte-eraldaketarako tresna. Zarauzko Udalak lekukoa hartuko du, eta tokitik eragiteko erronkari eutsiko dio plan horrekin.

Esan daiteke Zarauzko Udalak helburu argia duela: euskara normalizatu eta indartzea, herri identitatea eta hizkuntza-eskubideak bermatuz.

Baina, zergatik dauka halako garrantzia euskararen normalizazioak udalerriko politiketan?

Komunikazio-tresna izateaz gain, euskara identitate eta kohesio sozialaren zutabe nagusia da. Hona hemen hainbat gako:

Hizkuntza-ekologia: hizkuntzen artean oreka eta berdintasuna lortzea du helburu. Zarautzen, euskara eta gaztelania ofizialak izanda ere, biak ez daude egoera berean. Beharrezkoa da euskarari esparru eta funtzio berezkoak ematea aukera-berdintasuna bermatzeko.

Identitatea eta pertenezia: Hizkuntza identitate kulturalaren zati erabakigarria da. Erabilera sustatzeak pertenezia-sentimendua indartzen du, eta tokiko historia eta tradizioak babesten ditu.

Bizikidetzeta eta kohesioa: Zarautzen, gaur egun, berrogei hizkuntzatik gora hitz egiten dira. Gizarte eleaniztun honetan, euskarak gizarte kohesionatzeko bide izan beharko luke, hizkuntza komuna bihurtuz. Beraz, aukerak eta baliabideak eskaini behar dira euskararen ulermena bermatzeko, eta euskara erabiltzeko espazioak sortu, herritarren arteko harremanak sustatuz. Bizikidetzarako hiru balio daude oinarrian: aukeraberdintasuna, askatasuna eta justizia soziala.

Eraginkortasun administratiboa: Hizkuntza-politika argiak eta eraginkorrak ezartzeak efizientzia hobetu dezake administrazio publikoan, eta zerbitzuak herritar guztientzat modu ekitatiboan eta eskuragarrian ematen direla ziurtatu.

Ikuspegi komunitarioa: Herritarren bizi-baldintzak hobetu eta gizarte inklusiboagoa eta kohesionatuagoa eraiki nahi dugu. Euskara gakoa da horretarako, eta gizarte osoaren inplikazioa eta protagonismoa beharrezkoak izango dira. Elkar ulertzeko gai den gizarte elkarrengandik gertuago egongo da.

Laburbilduz, hizkuntza-normalizazioko politikak guztiz oinarrizkoak dira udalerrin inklusiboagoa, kohesionatuagoa eta eraginkorragoa eraikitzeko.

Azkenik, aipatu behar dugu Zarauzko AROA Plan Estrategikoan genero-ikuspegia sistematikoki txertatuko dela jarduera guztietan. Izan ere, genero-ikuspegia integratzea justizia kontua ere bada, eta funtsezko estrategia bat, antolaketa eta gizarte bidezko eta eraginkorragoak lortzeko. Ikuspegi horrek modua eskaintzen digu genero-desberdintasunak identifikatzeko eta zuzentzeko, eta ziurtatzeko herritar guztiek aukera berdinak izango dituztela garatzeko eta parte hartzeko. Hortaz, helburu gisa izango dugu:

- Emakumeen eta gizonen parte-hartze inklusiboa lortzea
- Emakumeen eta gizonen premiak eta beharrak identifikatzea
- Genero-diskriminazioak, zuzenekoak zein zeharkakoak, saihestea
- Emakumeen zein gizonezkoen parte-hartze orekatua sustatzea

2. METODOLOGIA

Hona hemen Plan Estrategikoa zehazteko erabilitako lan-metodologia:

Datu kuantitatiboen bilketa	<ul style="list-style-type: none"> - Datu soziodemografikoak eta soziolinguistikoak bildu dira iturri ofizialetatik: EUSTAT, Euskal Adierazleen Sistema (EAS) eta Soziolinguistika Klusterrak egindako neurketak. - Udalaren iturrietatik lortutako datuak ere jaso dira.
Galdetegiak	<ul style="list-style-type: none"> - Herri mailan euskararen erabileraren bilakaerari buruzko pertzepzioa jaso da galdetegi bidez. Ia 150 herritarrek bete dute galdetegia. - Gazteen artean euskararen erabilerari buruzko pertzepzioa jaso da galdetegi bidez. Galdetegiaren zabalkundea ikastetxeen laguntzaz egin da. Ia 800 gaztek bete dute
Elkarrizketa saioak	<ul style="list-style-type: none"> - Sektore desberdinetako herri-elkarteekin elkarrizketa-saioak egin dira datu kuantitatiboak kontrastatu eta aurrera begirako neurriak zehazteko. Guztira <u>5 saio</u>: <i>Kirola, Aisialdia, Merkataritza eta ostalaritza eta Hezkuntza</i> <p>Zirika Euskara Elkarte sortu berriak ere parte hartu zuen elkarrizketetan.</p>
Kontrastea arduradun politikoekin eta UEMArekin	<ul style="list-style-type: none"> - Prozesuan ateratakoa arduradun politikoekin eta UEMArekin kontrastatu da.
Saio irekia herritarrekin	<ul style="list-style-type: none"> - Prozesuaren berri emateko eta jasotako neurriak eta ekintzak kontrastatzeko saio irekia egin zen herritarrekin, eta haien ekarpenak jaso ziren.
Erabakiak	<ul style="list-style-type: none"> - Arduradun politikoekin eta Herritarren arloko Informazio Batzordean hartutako erabakiak izan dira.

Talde operatiboak eraman du prozesua aurrera: informazioa biltzeaz arduratu da, elkarrizketa-saioak antolatu ditu, eta aurrera begirakoaren zirriborroa osatu du. Euskara Departamentua eta EMUN aritu dira elkarlanean.

Elkarrizketetan guztira 16 emakumek eta 5 gizonek hartu dute parte, honela banatuta:

Sektoreak	Emakumea	Gizona
Euskara Elkarte	2	0
Ostalaritza	2	0

Merkataritza Elkartea	2	0
Aisialdia	3	0
Eskolak	5	1
Kirola	2	4
GUZTIRA	16	5

Eta, herritarrentzako parte-hartze saiora 25 lagun etorri ziren, horietatik 20 emakumeak ziren (gehiengoa) eta 5 gizonak. Oro har, emakumezkoen parte-hartzea handiagoa izan da.


3. DIAGNOSTIKOA

Atal honetan Zarauzko herriaren argazkia jaso dugu, datu kuantitatibo esanguratsuenak aukeratu ditugu eta prozesuan zehar aztertutako datu kualitatiboak ere bai, AROA marko berriaren ataletan banatuta.

3.1 EUSKARAREN EGOERARI BURUZKO DATUAK

Datu kuantitatiboei dagokienez, Zarautzen ezaugarri diren datu esanguratsuenak jaso ditugu, planaren norabidea hobeto zehazteko: datu soziodemografikoak, datu soziolinguistikoak — hala nola, hizkuntza-gaitasunari buruzkoak, erabilera, hezkuntza-ereduak— eta euskalduntze-alfabetatze datuak. Baita beste datu interesgarri batzuk ere: esaterako, herritarrek haien egunerokoan zenbatetan aukeratzen duten euskara, edo euskara sustatzeko ekimen eta programetako parte-hartzea.

Joera soziodemografikoa eta sozioekonomikoa



Iturria: EUSTAT

Hona hemen Zarauzko populazioaren grafikoa 2001etik 2023ra, sexuaren arabera banatuta. Lerro urdinak gizonen populazioa adierazten du, eta gorriak emakumeena. Ikusten den moduan, bi taldeek hazkunde konstantea izan dute urteetan zehar.

Adinari erreparatuz gero, biztanleen % **22,30** hirurogeita bost urtetik gorakoa da (nagusiki emakumeak), eta % 18,80 hogeitaz beherakoa. Atzerriko biztanleria, berriz, % **9,30** da (2023). Joera hori ere orokorra da bai eskualdean bai EAEn. Atzerritar gehienak Hego Amerikatik edo Amerikako beste herrialde batzuetatik etorri dira, eta horien hizkuntza nagusia gaztelania da.


Datu sozioekonomikoei dagokienez, jarduera ekonomiko nagusia zerbitzuen sektorea (% 75,5) eta industria sektorea dira (% 13,1). Guztira 1.082 establezimendu daude.

EKONOMIA-ENPRESA



Iturria: EUSTAT, Udaletako datuak

Gehiago zehaztuz, establezimenduen jarduerari dagokionez, gehienak merkataritza eta ostalaritza arlokoak dira, eta hurrena nagusitzen direnak jarduera profesionalak eta herri administrazioak.




Iturria: EUSTAT, Udaletako datuak

Pertsona enplegatuak udalerriko establezimenduetan 2023an **7.108** ziren.

Datu soziolinguistikoak


Zarauzko datu soziolinguistikoak jaso ditugu jarraian —*hizkuntza gaitasuna edo ezagutza, lehen hizkuntza, etxeko erabilera, Zarauzko ikas ereduak eta euskalduntze-alfabetatzeari buruzko datuak*—, uste dugulako oinarrizko datuak direla hemendik aurrera begirako plana zehazteko.

2021eko datuak ekarri ditugu hona (hain zuzen, azken erroldako datuak), eta 1991tik bilakaera hau jaso dugu.



Iturria: Biztanleriaren eta Etxebizitzen Zentsua, 1986-2021


Grafikoan ikusten denez, euskaldunen kopuruak zertxobait gora egin du, eta erdaldunena zertxobait jaitsi. Berdintsu mantendu da euskaldun hartzaileen kopurua (euskaldun hartzailea honela definitzen da: *Gai da ondo ulertzeko, baina ez hitz egiteko; nekez egiten du*).




Iturria: Biztanleriaren eta Etxebizitzen Zentsua, 2021

Zarauzko hizkuntza-gaitasunari buruzko azken datuak, 2021eko erroldaren arabera, honako hauek dira: euskaldunak % 73,45 dira; euskaldun hartzaileak % 13; eta erdaldunak % 13,5.

Eskualdeko datuetara etorrira, Zarautz oso eskualde euskaldunean dago. Eskualdeko datuak oraindik ere altuagoak dira, Urola-Kostako euskaldunen kopurua % 77,37 delako. EAE eta Gipuzkoako datuekin alderatuz gero, oso goitik daude datu horiek. Ondorioz, eskualdea babesgune bat da Zarautzentzat.




Lehen hizkuntzari dagokionez, Zarautzen, EAEko eta Gipuzkoako joera orokorrari jarraituz, etxeko hizkuntzak gero eta gehiagotan dira euskara eta gaztelania, edo euskara eta gaztelania ez den beste hizkuntza bat.




Iturria: Biztanleriaren eta Etxebizitzen Zentsua, 1991-2021

Etxean erabiltzen den hizkuntza dela eta, Zarauzko etxeetan gero eta gutxiago erabiltzen da euskara, eta, aldi berean, hazi egin da bi hizkuntzen erabilera, baita atzerriko beste hizkuntza batzuen erabilera ere.



Iturria: Biztanleriaren eta Etxebizitzen Zentsua, 1991-2021


Kaleko erabilerari dagokionez, berriz, aipatu behar da azken urteetako datua nahiko egonkorra dela eta **% 50en** bueltan dagoela.




Iturria: Soziolinguistika Klusterra

Eta erabilerari dagokionez, nabarmentzeko datua da haur eta gazteek erabiltzen dutela gehien. Hurrengo irudian erabilera, adinaren arabera.

Erabilera adinaren arabera, 2021




Iturria: Soziolinguistika Klusterra



Iturria: Euskal Adierazleen Sistema, EAS

Helduen euskalduntzeari dagokion datuan jaitsiera txiki bat ikusten da ikasle kopuruan azken hiru ikasturteetan. EAEko joera orokorrari jarraituz, emakumeen parte-hartzea handiagoa da.



Iturria: Euskal Adierazleen Sistema, EAS

Hezkuntza-ereduei dagokienez, Zarauzko ikastetxeetan D eredia bakarrik eskaintzen da Haur Hezkuntzatik Batxilergora arte. Lanbide Heziketako eskaintza akademikoan, berriz, 3 arlo daude aukeran:

- Arlo teknikoko heziketa zikloak: goi-mailako eta erdi-mailako zikloak euskaraz ematen dira erabat: Mekanizazioa, Elektrizitatea, Mekatronika, Diseinua, Robotika eta Produzioa.
- Ile-apainketa eta Estetikako erdi- eta goi-mailako zikloak lurralde osorako eskaintzen dira, eta gaztelaniaz ematen dira.
- Sukaldaritza eta Gastronomiako Heziketa Zikloak gaztelaniaz eskaintzen dira.

Jarraian dagoen taulan, azken hamar ikasturtetako eskaintza akademikoa jaso dugu (Lehen Hezkuntza, Derrigorrezko Bigarren Hezkuntza, Batxilergoa eta Lanbide Heziketa).

LEHEN HEZKUNTZA	2022-2023	2021-2022	2020-2021	2019-2020	2018-2019	2017-2018	2016-2017	2015-2016	2014-2015	2013-2014
Guztira	1327	1378	1438	1452	1488	1495	1532	1541	1560	1575
A eredia (%)	0	0	0	0	0	0	0	0	0	0
B eredia (%)	0,23	0,44	0,90	1,52	2,02	2,61	2,22	2,73	2,63	2,29
D eredia (%)	99,77	99,56	99,10	98,48	97,98	97,39	97,78	97,27	97,37	97,71

DERRIGORREZKO BIGARREN HEZKUNTZA	2022-2023	2021-2022	2020-2021	2019-2020	2018-2019	2017-2018	2016-2017	2015-2016	2014-2015	2013-2014
Guztira	1220	1208	1193	1188	1257	1219	1225	1212	1199	1186
A eredia (%)	0	0	0	0	0	0	0	0	0	0
B eredia (%)	0	0	0	0	1,43	1,23	2,20	1,82	2,09	2,11
D eredia (%)	100	100	100	100	98,57	98,77	97,80	98,18	97,91	97,89

BATXILLERGOA	2022-2023	2021-2022	2020-2021	2019-2020	2018-2019	2017-2018	2016-2017	2015-2016	2014-2015	2013-2014
Guztira	533	527	560	565	527	500	474	514	471	459
A eredia (%)	0	0	0	0	0	0	0	0	0	0
B eredia (%)	0	0	0	0	0	0	0	0	0	0
D eredia (%)	100	100	100	100	100	100	100	100	100	100

LANBIDE HEZIKETA	2022-2023	2021-2022	2020-2021	2019-2020	2018-2019	2017-2018	2016-2017	2015-2016	2014-2015	2013-2014
Guztira	497	533	505	479	491	511	505	448	484	485
A eredia (%)	31,39	31,14	29,70	27,97	29,33	29,35	32,87	37,72	40,08	34,23
B eredia (%)	8,05	4,88	7,13	5,85	4,68	5,68	3,96	0,00	0,00	0,00
D eredia (%)	60,56	63,98	63,17	66,18	65,99	64,97	63,17	62,28	59,92	65,77

Iturria: Euskal Adierazleen Sistema, EAS

Lanbide Heziketako datuari dagokionez, azken ikasturteari erreparatuz gero, A ereduaren eskaintza % 31 da, % 8 B ereduaren eta %60 D ereduaren. B ereduko eskaintzaren datuak arlo espezifiko batenak dira Zarautzen, lurralde mailako eskaintza akademiko zehatz batenak. Konparatzeko EAEko datuak eta Gipuzkoakoak ekarri ditugu:

Lanbide Heziketa	EAE	Gipuzkoa	Zarautz
A eredia	% 58,4	% 47	% 31
B eredia	% 20,1	% 17	% 8
D eredia	% 21,5	% 40	% 60

Iturria: Euskal Adierazleen Sistema, EAS

Bestelako datu batzuk

Herritarrek herriko zerbitzuetan egiten duten erabilerari buruzko argazki xeherik ez dugu, baina hainbat arlotako datuak ekarri ditugu txostenera, planean aintzat hartzeko modukoak izan daitezkeelako. Datuok errealitatearen berri ematen dute, eta baliagarriak izan daitezke herritarren hautuan eragiteko edo jakiteko ea zerbitzuen eskaintza hobetzeko beharra dagoen edo erabakitzeko ea gai horiek landu behar diren.




Datu horien artean, gainera, Zarauzko Udalak berak lantzeko interesgarriak diren datuak ere ekarri dira argazkira, Erabilera Planeko diagnostikoa jasotakoak. Datuok oinarri hartuta, Udalak herritarren hizkuntza-hautua aktibatzeneko neurriak zehaztu ditu bere planean.

Horiez gain, herriaren jarrera eta motibazioaren adierazgarri direlakoan, honako datu hauek ekarri ditugu zarauztarrek euskararekiko agertzen duten jarrera eta ekimena erakusten dutelako.



3.2 GALDETEGIAREN EMAITZAK: PERTZEPZIOA

2023ko irailean Zarauzko herritarren eta gazteen artean galdetegi bat egin zen euskararen inguruan zuten pertzepzioa ezagutzeko. Esan bezala, batetik, herritarrek bete zuten (147), eta bestetik, gazteek (800). Gazteen kasuan ikastetxeen bitartez egin zen zabalkundea eta betetzeko deia. Adinaren arabera parte-hartzearen irudian agertzen denez, 16-18 urteko gazteek erantzun dute galdetegia nagusiki, eta hurrena 13-15 adin-arteak.



Iturria: galdetegia, Udala



Herritarren galdetegian galdera hauek egin ziren:

- Azken urte hauetan, zure ustez, Zarautzen euskararen erabilerak gora/behera egin du edo mantendu egin da?
- Zertan oinarritzen duzu aurreko galderaren erantzuna? Zer nolako gertaerak/egoerak izan dituzu kontuan erantzuna aukeratzeko?
- Zein arlotan ikusten duzu euskararen erabilera ahulena?
- Zein arlotan ikusten duzu euskararen erabilera indartsuen? (bat baino gehiago aukera daitezke)

Eta gazteen galdetegian, berriz, beste galdera batzuk egin ziren:

- Zenbat erabiltzen duzu zuk euskara egunerokoan?
- Zein ekarpen egin dezake gazte zarauztar batek euskararen erabilerak gora eta aurrera egiteko?
- Galdetegi honetan jasotako erantzunak osatze aldera, prest zaude Udaleko Euskara Departamentuarekin eta beste gazte batzuekin batera, taldean elkartuta, euskararen erabilerari buruzko gorabeheraz hausnartzeko?

Grafikoetan herritarrek eta gazteek erantzundakoa azaltzen da:



Bi kasuetan pertzepzioa antzekoa da. Galdetegia bete duten herritarren % **9k** uste du euskararen erabilerak gora egin duela, eta gazteen artean % **13k**. Beraz, gutxi uste dute Zarautzen euskararen erabilerak gora egin duela.

Gehiago dira bi taldeetan euskarak behera egin duela diotenak, herritarren artean % **54k** eta gazteen artean % **38k**. Hala ere, gazteen taldean, euskararen erabilera mantendu egin dela uste du % **49k** (herritarrek baino gehiagok); izan ere, herritarren artean % **37k** erantzun du mantendu egin dela. Oro har apur bat positiboagoak dira gazteak.

Galderetan pixka bat gehiago sakonduta, alegia galdetzen denean zein arlotan ikusten duten indartsuen eta zeinetan ahulen, eta zein arlotan eragin beharko litzatekeen, hau da argazkia.

Herritarrek erantzundakoaren arabera:

Zein arlotan ikusten duzu euskara indartsuen?		Zein arlotan ikusten duzu euskara ahulen?	
Eskolan	% 61,2	Sare sozialetan	% 63,3
Haurren artean	% 49,9	Ostalaritzan	% 59,9
Kultur eskaintzan	% 49	Gazteen artean	% 46
Familian	% 41,5	Gurasoen artean	% 37,4

Gazteek erantzundakoaren arabera:

Zein arlotan ikusten duzu euskara indartsuen?		Zein arlotan ikusten duzu euskara ahulen?	
Eskolan	% 86,8	Sare sozialetan	% 76,7
Lagun artean	% 65,8	Lan harremanetan	% 36
Kirolean	% 57,8	Gurasoen artean	% 31,4
Herriko merkataritza	% 47,6	Ostalaritzan	% 30,1

Antzekotasunak badaude ere, badira aldeak. Kezken artean, herritarren eta gazteen erantzunek bat egiten dute ostalaritzako, sare sozialetako edo gurasoen arteko erabileran.

Aldiz, herritarrek uste dute gazteen arteko erabilerak behera egin duela; baina gazteek aitortzen dutenez, eskolatik kanpo, lagun artean kokatzen dute euskararen erabilera indartsuen. Horrez gain, kale-erabileraren neurketen arabera, gazteek erabiltzen dute gehien euskara, hurrekin batera. Beraz, badirudi, gazteen erabilerari buruzko aurreiritzi okerra sortuta dagoela herritarren artean.

Aurrera begira lehentasuna zein arlotan jarriko luketen galdetuta, hona hemen erantzunak:

Herritarrak		Gazteak	
Etorri berrien harrera	% 73,5	Haur eta nerabeen hizkuntza ohiturak	% 76,7
Haur eta nerabeen hizkuntza ohiturak	% 66,7	Etorri berrien harrera	% 59,6
Ikus-entzunezkoak eta euskara	% 61,9	Administrazioak eskaintzen dituen zerbitzuak	% 50,1
Euskararen sentsibilizazioa	% 52,4	Lan mundua	% 48,5

Bai herritarrak bai gazteak bat datoz lehentasunez bi arlo hauek lantzearekin: etorri berrien harrera eta haur eta nerabeen hizkuntza-ohiturak. Gainerakoetan, gazteen kezken artean

administrazioek eskaintzen dituzten zerbitzuak eta lan mundua daude. Aldiz, herritarrek uste dute ikus-entzunezkoetan eta euskararen sentsibilizazioan eragin beharra dagoela.

Herritarren eta gazteen pertzepzioak ezagutzea garrantzitsua izan da, eta baliagarria, batez ere, Euskara Departamentuak aurrera begira zein lan-esparru lehenetsiko dituen jakiteko.

3.3 AZTERKETA KUALITATIBOA

Atal honetan, aurrez begiz jotako esparruetako kide eta eragileekin antolatutako elkarrizketa-saioetan eta ondoren egindako saio irekian jasotakoak ditugu.

Esparru bakoitzean jasotako informazioa taula bidez irudikatu dugu:

- **Egoera:** euskarak esparru bakoitzean duen egoerari buruz taldekideek esandakoak
- **Balorazioa:** ondo egindakoak eta hobetzekoak
- **Aurrera begirako proposamenak eta balizko ekintzak:** taldeetan eta saio irekian esandakoak

MERKATARITZA ETA OSTALARITZA

EGOERA	
<ul style="list-style-type: none"> - Herriko tabernetan euskaraz ez dakien gero eta langile gehiago dago - Apartamentu turistiko eta hotelen kasuan: <ul style="list-style-type: none"> - Banatzen duten informazioa euskaraz ere badago. - Hauek dira “euskararen enbaxadore”. Askotan galdetzen diete euskarari buruz. - Zerbitzua emateko behar diren baliabideak beste batzuen esku geratzen dira: agentziak, erreserbak egitea, webguneak... Baliabide horiek gaztelaniaz eskaintzen dira. - Merkataritza: <ul style="list-style-type: none"> - Euskaraz ere saltzen da; horretaz kontziente dira. - Lan-karga da beraiantzat sare sozialak euskaraz izatea. - Bezero motak: <ul style="list-style-type: none"> - Bertako turistak: nafarrak eta bizkaitarrak asko. - Atzerritarrak ere badatoz; euskara bitxia eta erakargarria da. - Edergintza arloan bezero gehienak eskualde eta ingurukoak dira, euskaldunak. 	
BALORAZIOA	
ONDO	HOBETU
<ul style="list-style-type: none"> - Paisaia linguistikoa euskaratzeko laguntzak Udaletik: errotulazioa, menuak... euskaraz jartzeko. - Itzulpenak egiteko laguntza - Kanpotarrentzako hiztegia (apartamentu turistikoetan) eta informazioa (apartamentuetako arauak). 	<ul style="list-style-type: none"> - TicketBAi euskaraz instalatzeko ahalegina. - Enpatiaz jokatu hizkuntza kontuetan, euskara ez izatea istilurri. - Merkataritza eta ostalaritza elkarteak antolatutako formazio-saioak (euskaraz eta euskarari buruz)

<ul style="list-style-type: none"> - Bezeroei harrera euskaraz, gehienbat merkataritzan. 	<ul style="list-style-type: none"> - Sare sozialetan euskararen presentzia zaintzea, sustatzea. - Online salmentak euskaraz ere edo euskaraz nagusiki egiteko aukerak. - Tabernak euskal musikaz girotzea. - Merkataritzan paisaia linguistikoa hobetzea.
AURRERA BEGIRAKO PROPOSAMENAK ETA BALIZKO EKINTZAK	
<ul style="list-style-type: none"> - Lehen hitza euskaraz egitearen garrantzia. - Ulermena bermatzea. - Sare sozialetan eta euskarri digitaletan oro har euskara txertatzeko moduak ezagutzea. - Euskarari buruz zer kontatuko dugu? Adostu eta bateratu. - Errotulazioa, digitalizazioa, kontratazioak, diskurtsoa eta mezua ere landu behar da ostalari eta dendariekin (zergatik euskara, zer irabazten dugu). Euskarari buruzko datuak eta nolabaiteko jakintza zabaldu behar da ostalari eta merkatariekin. - Udal Elkartearekin lanketa egin eskaintza hobetzeko, eta formazioa eta dirulaguntza-lerroak aztertu euskara-baldintzak jartzeko. - Mintzalaguna partaideen artean. - Zarauzko gizartearen aktibazioa: bezeroekin lan egin zenbait egoeratan nola jokatu jakiteko. Bezero aktiboak eta asertiboak behar dira. 	

AISSIALDIA

EGOERA	
<ul style="list-style-type: none"> - Udalaren kultur eskaintza nagusiki euskaraz da. - Haurren aisialdi antolatua eskolek eta elkarteek antolatua da, eta euskaraz. - Gurasoekiko harremana euskaraz edo ele bitan da. - Begirale guztiak euskal hiztunak dira. - Haur eta gazteen erabilera norbere ohituren arabera da. - Ikastetxe desberdinetako haurrak nahastean erabilerak gora egiten du. - Zenbat eta nagusiago, orduan eta gaztelania gehiago (joera). 	
BALORAZIOA	
ONDO	HOBETU
<ul style="list-style-type: none"> - Aisialdi-talde bakoitzak bere funtzionamendua badu ere, guztiak euskaraz funtzionatzen dute nagusiki. 	<ul style="list-style-type: none"> - Aisialdi eta kirol taldeetan borondatez dabilen jendea izanik, laguntza, estrategiak... behar dituzte egunerokoan. - Hezitzaile-lanetan dabilzan gazteek hizkuntza-estrategiak lantzeko formazioa. - Arriskuak ekiditeko neurriak hartzea, atzera egitea saihesteko. - Hezitzaileen titulazioa / formazioa euskaraz izatea. - Eskola ezberdinen arteko ekimenak eragin.

	- Formazio parekidetasuna, hizkuntza...	integrala: prebentzioa,
AURRERA BEGIRAKO PROPOSAMENAK ETA BALIZKO EKINTZAK		
<ul style="list-style-type: none"> - Baliabideak eman (formazioa) eta estrategiak landu begiraleekin, haur eta gazteen erabilera sustatzeko. - Mezuek positibotik izan behar dute. - Jarrera tinkoak izan. - Begiraleei nolabaiteko formazioa eskaintzea eta hizkuntza-estrategiak ikastea. - Irizpide bateratuak ere ondo egon daitezke, edo taldean hausnarketak egitea: nola jokutzen dute familiekiko komunikazioetan, oharrekin, bileretan... - Herri mailako agenda bateratua. - Eragileak elkarlanean aritzea. - Begirale ikastaroa egiteko "eredu" desberdinak daude Zarautzen. 		

HEZKUNTZA

EGOERA	
<ul style="list-style-type: none"> - Euskararekiko lotura afektibo txikiagoa. - Gazteen "eremu pribatuan" nola eragin ez dakigu. - Gero eta gehiago, ikasle batzuek euskara eremu formalarekin lotzen dute. - Eskolaz kanpoko jardueretan eragin behar da. - Kanpoko jatorriko ikasleak euskara indartzeko saioetara joaten dira, baina koordinazioa hobetu behar da ikastetxeekin. 	
BALORAZIOA	
ONDO	HOBETU
<ul style="list-style-type: none"> - Elkarlana ikastetxeen eta Udalaren artean. - Udaletik gazteei zuzendutako soziolinguistika saioak antolatzen dira. - Elkarlanean egiten diren ekimenak: bideo-lehiaketak, etab. - Gazteen interesen begira jartzea. - Soziolinguistikako saioek eragin positiboa izan dute. 	<ul style="list-style-type: none"> - Errekonozimendua egindako lanari (lehiaketetako emaitzen zabalkundea...) prestigioa eman euskaraz egindako lanei. - Kanpotik datozenak zeharka integratu: dantza, musika, kirola... (tarifa sozialak...). - Sentsibilizazioa landu (euskararekiko atxikimendua, jarreretan eragin, "alde" egoteko modu ezberdinak) - Ikastetxeetan hizkuntza-irizpideak ondo zehaztu eta finkatu. Irakasleek irizpide horiekiko koherentziaz jardutea. Erreferentziazko hizkuntza euskara izatea beti (komunikazioetan, bileretan...). - Horretarako beharrezko laguntzak eskaini (telegram, itzultzaileak...) - Irakasleek euskarari buruz gurasoei ematen dieten mezua zaindu, landu (irakasleen inplikazioa landu)

- Ikasleen lan praktikak euskaraz izan daitezen irizpideak landu.

AURRERA BEGIRAKO PROPOSAMENAK ETA BALIZKO EKINTZAK

- Elkarlana bultzatu ikastetxeen artean eta ekimen bateratuak egin
- Gazteek gustura hartzen dituzte lehiaketak, adibidez. (*pegatina lehiaketa...*)
- Ahozkotasuna landu
- Koordinazioa hobetu, ikastetxeen eta euskaltegiaren artean
- Teknologia berrietan euskararen presentzia behar da

KIROLA

EGOERA

- Herriko haur eta gazte gehien biltzen dituen arloa da: igeriketan 260 bazkide; eskubaloian 160 eskolan eta 500 federatuta; futboleak 600; saskibaloian 300...
- Klubek euskaraz egiteko ahalegina egiten dute; komunikazioak euskaraz ere badira
- Euskaraz egitea balio bat da
- Kirol ekintzen ingurua (musika, animo esamoldeak, esatariak...) euskaraz izateko zailtasunak
- CUP, OPEN... erdarazko izenak zergatik?
- Hizkuntza irizpideak: naturaltasunez egiten dira ekitaldi batzuk euskaraz

BALORAZIOA

ONDO

- Kirol talde gehienek hizkuntza erabilera euskara izatea.
- Eskola kiroleko erabileraren neurketetan izandako emaitza positiboa.
- Kirol taldeek hizkuntzarekiko sinergiak topatzea.

HOBETU

- Jendaurreko ekitaldi eta ospakizunetan, kirolean... euskarazko musika jarri, abesti zerrendak zabaldu, harmailetan animatzeko mezuak prestatu, *speaker* lanak euskaraz egin...
- Kirol federazioekin hizkuntzaren gaia landu: euskal hiztunak diren entrenatzaileak, epaileak...
- Erreferenteekin lanketak euskaraz: entrenamenduak, beren lana euskaraz egiten ikusi...
- Klubez gairik harremanak landu
- Euskararekiko lotura afektiboak landu

AURRERA BEGIRAKO PROPOSAMENAK ETA BALIZKO EKINTZAK

- Kirolekin lotutako euskarri eta baliabideak euskaraz izateko neurriak hartu (webguneak, izen-emateko plataformak...)
- Kirol erreferenteekin entrenamenduak euskaraz. Gazteekin zuzeneko harremana landu
- Kirol ekintzen ingurua euskaraz izateko irizpideak landu eta ezarri.
- Hizkuntza-irizpideak bateratzea eta jarraipena nola egin adostea
- Eusko Jaurlaritzarekin harremanak lantzea
- Klubekin plan xumeak lantzea
- Haur etorri berriak integratzeko moduak aztertzea

4. AROA 2025-2034

AROA hamar urtetarako sortu den marko estrategikoa da, eta egun bizi garen gizarte honen beharrei erantzun nahi die; izan ere, euskaratik gizarte eraldatzeko tresna bat da. Kudeaketa aurreratuan oinarritutako eredua izanik, gizarte eraldaketan inplikaturako eragileak eta entitateak elkartu eta proiektuak identifikatu ditu. Modu horretara identifikatu ditugu Zarautzen lantzeko interesgarriak diren proiektu estrategikoak. Herritarren, eragileen eta entitateen arteko lankidetzak eta harremanak sendotzea ere garrantzitsua izango da komunitatea eratzeko.

4.1 NAHI ESTRATEGIKOA, MISIOA ETA IKUSPEGIA

Hurrengo 10 urtetarako agertokia irudikatu eta deskribatzen da jarraian:



Nahi estrategikoa

Zarautz euskararen herria izatea



Misioa

Zarauzko herriari datozen hamar urtetarako norabide bat eskaintzea, euskararen ezagutza eta erabilera sustatzeko. Datorren hamarkadan Zarautzen hiztun ahaldundu eta aktibo gehiago izatea eta zarautzar etorri berriei erraztasunak ematea euskarazko eremuetan sartzeko, Zarautz euskaldunagoa, inklusiboagoa eta kohesionatuagoa eskainiz.



Ikuspegia

- Euskal hiztun gehiago ditugu, jarrera eta portaera asertiboak dituzten hiztunak dira.
- Zarautzen euskara ulertzen dutenen kopurua gero eta handiagoa da.
- Zarautzera etortzen diren bisitariak euskara zarautzartasunaren ikur garrantzitsua dela ikusten dute.
- Hizkuntza-portaera kontzientek dituzten gazteek euskal komunitate indartsua eta aktiboa osatzen dute Zarautzen.
- Etorri berrien artean euskarak balio erantsia du eta integratzeko bidea da, komunitatearen parte izateko.
- Erakunde publiko eta pribatuek eskaintzen dituzten zerbitzuetan euskararen presentziak gora egin

- Eragileen gogobetetzea altua da eta egindako lanarekin pozik gaude. du, eta kalitatearen ikurra da zerbitzuak euskaraz eskaintzea.

4.2 ARDATZ ESTRATEGIKOAK

Zarautzen AROAko 6 ardatz estrategiko hauek aukeratu dira lanerako:

Gobernantza; Jarrera/Motibazioa, Ezagutza/Gaitasuna, Erabilera/Elkarreragina, Ikerketa/Sistematizazioa eta Komunikazioa eta Hedapena.

Erronkak, lan ildoak eta ekimenak ere AROAko markoan zehaztutakoak dira, eta Udalean EKINTZAK zehaztu dira.

Gobernantza

AROA oinarri hartuta, Zarautzen eragile eta entitateen arteko lankidetzaz nolakoa izango den jaso da jarraian. Zeharkakotasunez lan egingo da orain arte bezala, Udaleko departamentuekin elkarlanean eta hainbat sektoretako eragileekin ere bai.

Adostasuna eta lankidetzaz egongo da euskalgintzako eragileen artean; UEMArekin, euskaltegiekin eta sortu berri den euskara elkartearekin koordinatuko gara. Arduradun politikoekin ere lanketak egingo dira Zarautz euskararen herria izan dadin, eta gero eta euskaldunagoa den herriak aurrera egin dezan erabileran. Taulan jaso ditugu datozen 10 urtetan landuko diren erronkak, lan ildoak eta ekimenak, AROA markotik aukeratutakoak.

Gobernantzari dagokionez, helburu hauek izango ditugu: euskararen aldeko eragileak modu koordinatuan aritzea, arduradun tekniko eta politikoen aldetik euskararen aldeko lidergotza eta eredugarritasuna sendotzea, eta gizarteko beste mugimendu sozialekin lankidetzaz berriak zabaltzea.

ERRONKAK	LAN ILDOAK	EKIMENAK
G.1. Euskararen normalizazioa agenda politikoaren erdigunera eraman	G.1.1. Herritarren hizkuntza-eskubideen aldeko politikak garatu	G.1.1.2. Erakunde publiko eta pribatuekin lan egin herritarren hizkuntza-eskubideak bermatzeko eginbeharrez jabe daitezen
	G.1.2. Koordinazioa eta osagarritasuna sustatu eremu instituzionalean zein sozialean	G.1.2.1. EAEko administrazioen artean zein administrazio bakoitzaren barruko sail edo atalen artean elkarlana bultzatu G.1.2.3. Erakunde publikoen eta euskalgintzako eragileen arteko elkarlana bultzatu G.1.2.4. Euskararen normalizazioan ari diren pertsonak, elkarteak,

		erakundeak, hedabideak, enpresak... saretu
	G.1.3. Euskararen biziberritzearen aldeko lidergoa eta konpromisoa indartu	<p>G.1.3.1. Arduradun politikoak eta teknikoak euskara biziberritzeko prozesuetan trebatu</p> <p>G.1.3.2. Lidergo postuetan hizkuntza-jokabide eredugarriak adostu eta gauzatu</p> <p>G.1.3.3. Administrazio publikoek euskararen biziberritzearen aldeko jokabide eredugarriak areagotu</p>
G.2. Berariazko nahiz zeharkako hizkuntza-politika garatu, gainerako hizkuntzekin zein kulturekin bizikidetzan	G.2.2. Zeharkako hizkuntza-politikak garatzeko estrategiak gauzatu	G.2.2.2. Euskararen normalizazioari batzen zaizkion erronka sozio-politikoetan sakondu eta modu eraikitzailean eragin (jasangarritasuna, krisi ekologikoa, genero berdintasuna, gizarte aniztasuna, enpresen erantzukizun soziala...)
	G.2.3. Gizartearen aniztasuna kudeatu euskara ardatz izanik	<p>G.2.3.2. Euskara biziberritzearen aldeko eta gizarte-berdintasunaren aldeko politikak uztartu, elkarrengandik elikatu</p> <p>G.2.3.4 Hezkuntza-komunitateko eragileak (irakasle, ikasleak, familia...) eta udalak biziberritze prozesuaren parte aktibo bihurtu, sentsibilizatuz, komunikazio-esparruak zabalduz</p>
G.3. Euskararen biziberritzea munduko hizkuntza-aniztasunaren balioetan kokatu	G.3.1. Euskara munduko hizkuntza gutxituen testuinguruan ulertu eta ikuspegi hori gizarteratu	G.3.1.1. Hizkuntza-lankidetzaren eremuan egindako lana sustatu.
		G.3.1.4. Garapen Jasangarriko Helburuekin lerrokatuta lan egin

GOBERNANTZA ZARAUTZEN			
XEDE TALDEA	EKINTZA	Arduraduna	ALIATUAK
UDALA	<ul style="list-style-type: none"> · Arduradun politikoak eta teknikoak euskara gaietan ahalduntzeko neurriak hartzea; haien lidergotza, inplikazioa eta parte-hartzea sustatzea · Udal mailako koordinazioa eta euskararen zeharkakotasuna lantzea Udalaren antolaketa maila guztietan (Zuzendaritza taldea, koordinazio taldeak, Informazio Batzordeak, Udaltzako...) · Udalaren Erabilera Plana gauzatu, jarraipena egin eta ebaluatu Udala arnagune, eragile aktibo eta eredu bihurtzeko euskararen normalkuntzan · Euskara Batzordea eta lantaldeak osatu udal barruan · Hizkuntza politika txertatu kontratazio eta dirulaguntzetan · Zarauzko herriari udal barruko planaren eta herrira begirako AROA planaren berri eman eta lorpenak ezagutarazi 	Udala	Udal departamentuak eta arduradun politikoak
UDALERRIA EUSKALGINTZA HERRIGINTZA	<ul style="list-style-type: none"> · Euskararen biziberritzean lanean dabiltzan herriko eragileen koordinazio-gunea sortu eta parte-hartzea bultzatu · Euskara biziberritzeko estrategikoak izan daitezkeen arloetan lan egin, honela: koordinazio-gune iraunkorrak eraikiz edo dagoeneko daudenetan parte hartuz (ostalaritza, merkataritza, hezkuntza, kirola, aisialdia...) eta harreman berriak eraikiz (etorri berriak, gazte arrazializatuak...) · Euskara elkarrekin elkarlan iraunkorrerako gune bat bultzatu 	Udala	Euskalgintza eta herriko eragileak

	<ul style="list-style-type: none"> · Hizkuntzaren inguruko diskurtso integratzaile bat gizarteratu, honako printzipio hauek oinarri hartuta: hizkuntza-ekologia, bizikidetza, gizarte kohesioa, aukera-berdintasuna, justizia soziala... · Herriko eragile eta baliabideen mapa egin, hezkuntza, kirola, aisialdia, eta kulturartekotasunari bereziki erreparatuz, euskararen normalizazioan egin dezaketen ekarpena aintzat hartuz. 		
UDALERRIZ GAINDI	<ul style="list-style-type: none"> · Udal elkarteko Euskara Batzordean parte hartzea. Turismoari eta lan munduari buruzko egitasmoak landu · UEMAren Deiadarka foroetan parte hartu · GFA: Udal<>ekin foroan parte hartu, Gipuzkoako gainerako euskara teknikariek batera · Udaltop euskara teknikarien jardunaldietan parte hartu · Euskaraldiko talde eragilean parte hartu 	Udala	UEMA, GFA, UKUE, HPS, Taupa

Jarrera/Motibazioa

Euskararen erabileran jauzi bat eman nahi badugu, hiztun mota desberdinen parte hartzea beharko dugu. Hiztun bakoitzak, daukan gaitasuna daukala ere, mugitu beharko du dagoen tokitik euskararen erabileran urrats bat egiteko, eta, horretarako, ezinbestekoa izango da herritarren jarrera eta motibazioetan eragitea.

Batetik, euskal hiztunak kontzientziatu, ahaldundu eta aktibatu beharko ditugu, euskal komunitatea sendotzeko. Izan ere, euskara jakitea ez da nahikoa erabilerarako urratsa emateko, eta, identitatea eta kontzientzia ere transmititu behar dira. Euskal hiztun horiek jarrera eta praktika linguistiko berriak bereganatuko dituzte, eta etorri berriei euskal komunitatean integratzeko laguntza eskainiko diete.

Bestetik, euskararik ez dakitenak euskarara erakartzeko ahalegina egin behar dugu. Euskara ulertzeko gogoia sortu behar dugu euskararik ez dakitenengan, eta euskarazko espazioetarako sarbidea erraztu behar diegu, euskal komunitatearen parte senti daitezen. Garrantzitsua izango da identitate anitzaren gaia lantzea eta euskaldunen komunitatea erakargarri egiteko bideak lantzea.

ERRONKAK	LAN ILDOAK	EKIMENAK
JM.1. Euskararen aldeko jarrera areagotu eta hiztunen ahalduntzean, hizkuntza-ohituretan eta - portaeretan eragin	JM.1.1. Euskaldun izatearen kontzientzian eragin	<p>JM.1.1.1. Euskaldunen hizkuntza-eskubideen gaineko kontzientzia areagotu</p> <p>JM.1.1.2. Euskal identitate askotarikoek euskararekin duten lotura aztertu eta estrategiak landu</p>
	JM.1.2. Gizartea aktibatzeke esperientziak indartu eta hedatu	<p>JM.1.2.1. Lehen hitza euskaraz egitera gonbidatzeko ekimenak gauzatu</p> <p>JM.1.2.2. Eskaintza eta eskaera aktiboak eta jarrera proaktiboak bultzatu administrazioan, arlo sozioekonomikoan eta herritarren artean</p>
	JM.1.3. Euskal hiztun edo komunitate ahaldundua erdiesteko bidea egin	<p>JM.1.3.1. Euskara biziberritzeko arazoak landu eta gizarteratu</p> <p>JM.1.3.2. Ahalduntze-prozesuak sortu eta dinamizatu</p> <p>JM.1.3.3. Motibazioa landu, besteak beste kulturaren</p>

		<p>bitartez, kultur hartzailea zein sortzailea izatea bultzatuz</p> <p>JM.1.3.4. Euskal komunitatearen ikusgarritasuna bermatzeko estrategiak diseinatu eta garatu</p>
JM.2. Euskarari eta euskal komunitateari buruzko pertzepzio positiboa eta ikusgarritasuna handitu	JM.2.1. Euskaldunen komunitatea sendotu	JM.2.1.1. Komunitatearekiko atxikimendua lortzeko eta komunitatearen parte izateko bideak aztertu eta estrategiak landu
	JM.2.2. Euskararen erakargarritasuna landu	JM.2.2.1. Gizartearentzat erreferenteak diren pertsonekin zein erakundeekin euskara sustatzeko lanketa egin
	JM.2.4. Euskarara hurbildu ez diren herritarrak euskarara erakarri	<p>JM.2.4.4. Atzeritar jatorriko herritarrentzako harrera linguistikoa eta kulturala zehaztu eta indartu</p> <p>JM.2.4.5. Estrategia hezitzaileak diseinatu atzeritar jatorriko herritarren kultura eta hizkuntzaren eta euskal kultura eta euskararen arteko zubia egiteko.</p>

HIZKUNTZA-PORTAERA KONTZIENTEAK DITUZTEN ZARAUZTARRAK			
XEDE TALDEA	EKINTZA	Arduraduna	ALIATUAK
Herritarrak	<ul style="list-style-type: none"> · Hitzunek kontzientzia hartzeko beharrezkoak dituzten baliabideak eskaintzea formazioaren bidez (hizkuntza-kontzientziarioa lantzea, jarrerak eta portaerak aztertzea, identitatea eta hizkuntza, arnasguneen garrantzia eta funtzioak...). · Euskaldunak ahalduzko pilulak sortu eta zabaldu, herrian arloz arlo osatuta dauden bilera eta batzordeak baliatuta (ostalaritza, merkataritza, ZKE, eskola kiroleko koordinatzaileak...) · Hizkuntzari lotutako kanpainak/ekimenak antolatu, edo nazio mailan antolatzen direnak sustatu, motibazioan eragiteko helburuz: <ul style="list-style-type: none"> - Euskararen Eguna - Euskaraldia - Korrika - Egin nirekin ere euskaraz - Abizenak euskalduntzeko kanpaina - Errenta aitorpena euskaraz egiteko kanpaina - Euskarazko hizkuntza-hautua aktibatzeke aukeren inguruko kanpaina 	Udala	<p>Herriko eragileak (askotarikoak)</p> <p>UEMA</p>

	<ul style="list-style-type: none"> - Hitzaldiak, ikuskizunak... · Hitzun ekologistaren dekalogoaren modukoak sortu eta zabaldu · Sare sozialak eta komunikabideak gehiago baliatu euskarari prestigioa eta ikusgarritasuna emateko 		Tokiko hedabideak
Herritar etorri berriak (jatorri atzerritarrekoak eta euskal jatorrikoak)	<ul style="list-style-type: none"> · Harrera linguistikoa eta kulturala zehaztu eta indartu, Immigrazio Zerbitzuarekin elkarlanean · Etorrinen komunitateetan euskara erabiltzen duten erreferenteak ezagutzera eman. Kasu edo praktika eredugarriak identifikatu eta gizarteratu · Kulturartekotasuna landu 	Udala	Immigrazio Zerbitzua
Administrazioa	<ul style="list-style-type: none"> · Udalak eskaintza aktiboa egin herritarren artean, eta herritarrek euskararen aldeko hautua egin dezaten sustatu (JM1) · Herriko leku estrategiko edo sarreratan "herri euskalduna" gisako kartelak jarri · Euskarazko kultur ekitaldiak antolatu: kontzertuak, irakurle-kluba, bertso-afaria, lehiaketak... 	Udala	
Gazteak	<ul style="list-style-type: none"> · Gazteen gertuko eragileak formatu hizkuntza jokabideen inguruan (begiraleak, entrenatzaileak, irakasleak...) 	Udala	UEMA Eskolak Aisialdi elkarteak

	<ul style="list-style-type: none"> · Gazteak hiztun kontziente eta aktibo bihurtu daitezzen formazioa eskaini (Zarautz Eleka, Batxilergoko tailerrak...) · Kanpainak edo ekimenak antolatu gazteek euskararen aldeko hautua aktibatu dezaten · Nerabe/gazteen erreferenteekin saioak antolatu · Identitate anitzaren gaia lantzen hasi gazteekin, Zarautz Elekaren bidez · Gazte etorri berriengana gerturatu eta entzute-ariketa bat egin, beren bizipenak eta pertzepzioak hobeto ezagutzeko · Gazteen artean hiztun mota desberdinen arteko elkarreragina bultzatu 		Kirol elkarteak
	<ul style="list-style-type: none"> · Euskal kulturaren ikusgarritasuna bermatzeko estrategiak landu (kulturaren lanketa Zarautz Elekan...) · Kultur jarduera erakargarriak antolatu gazteentzat euskararekiko eta euskal munduarekiko jarreretan eragiteko (dantza-ikastaroak, musika emanaldiak...) 	Udala	Hezkuntza zentroak
Gurasoak	<ul style="list-style-type: none"> · Guraso berriei begirako sentsibilizazio-ekintzak. · Haur jaio berrientzako opariak · Parkeetan, umeentzako guneeetan... kartelak jarri, euskaraz jarduteko gonbita eginez gurasoei 	Udala	UEMA Zirika
Hezkuntza	<ul style="list-style-type: none"> · Eskoletako irakasle eta hezitzaileak trebatu soziolinguistikan 	Udala	UEMA Ikastetxeak
	<ul style="list-style-type: none"> · DBHn Zarautz Eleka landu eta garatu · Haur eta lehen hezkuntzako programak landu eta bideratu ikastetxeetan 	Udala	Ikastetxeak

	<ul style="list-style-type: none"> Guraso-bileretan sentsibilizazio-lana egin, aurrez denon artean adostutako mezuak emanez 	Udala	Ikastetxeak
Kirola	<ul style="list-style-type: none"> Zarauzko kirol elkarteari diziiplina anitzeko formazioa eskaini, parekidetasuna, kulturartekotasuna, prebentzioa eta euskara gaien inguruan. 	Udala	Zarautz Kirol Elkartea
Lan mundua	<ul style="list-style-type: none"> UKUErekin diskurtso bat partekatu eta norabide berean lanean jarri. Elkarlana, koordinazioa eta jarraipena 	Udala	UKUE
	<ul style="list-style-type: none"> Euskarari buruzko diskurtso bat partekatu ostalariekin eta merkatariekin: "Euskararen balio erantsia" 	Udala Turismo Departamentu a	Zurekin, Murkil, UEMA
	<ul style="list-style-type: none"> "Ongi Etorri Euskararen Herrira" egitasmoa 	Udala Turismo Departamentu a	UKUE

Ezagutza/Gaitasuna

Euskararen ezagutzari dagokionez, Zarautzen euskararen ulermena zabaltzea jarri dugu erronka nagusi gisa, eta, bereziki, herriko hainbat sektoretan jarriko dugu fokua, hala nola, merkataritza-ostalaritzan edo zaintza sektorean. Bestalde, etorri berrientzat pasabide naturalak diren guneeetan ere hainbat dinamika martxan jartzen saiatuko gara, etorri berri horiek euskararen irakaskuntza-prozesura bideratzeko ahalik eta azkarren.

Horretaz gain, kontuan izanda gaitasun erlatiboa dela euskararen erabilera gehien baldintzatzen duen adierazle bat, adierazkortasuna lantzeko ekimenak egingo dira batez ere gazteekin.

ERRONKAK	LAN ILDOAK	EKIMENAK
EG.2. Euskara irakatsi eta ikasteko aukerak indartu eta berriak sortu.	EG.2.1. Ezagutza orokortzeko eta espezializatzeko baliabideak handitu eta tresnak sortu.	EG.2.1.1. Ikaskuntza eta irakaskuntza prozesuak bultzatu, euskara testuinguru askotarikoetan erabiltzeko, eta horretarako euskara estandarra zein tokiko hizkerak elikatu, aberastu eta sendotu, eta adierazkortasuna indartu, hizkuntzaren kalitatea bermatuz.
	EG.2.2. Euskara ikasteko aukera berriak sortu eta baldintzak erraztu.	EG.2.2.1. Tokian tokiko beharrei erantzuten dieten euskalduntze-prozesuak aztertu, eta beharrendararen arabeko eskaintzak sortu.
EG.3. Euskarara hurbiltzen diren atzerritar jatorriko herritarren kopurua handitu.	EG.3.1. Erraztasunak eta baliabideak eman atzerritar jatorriko herritarrek euskara ikas dezaten.	EG.3.1.1. Ikaskuntza-prozesuak errazteko baliabideak sortu eta eskaini.
		EG.3.1.2. Erraztasunak eman atzerritar jatorriko herritarren seme-alabek eskolaz kanpoko jardueretan parte hartu dezaten.

<p>EG.4. Euskararen ezagutza orokortzeko bidean, erraztasuna (gaitasun erlatiboa) berariaz zaindu.</p>	<p>EG.4.1. Euskal elebidunen eta elebidun orekatuen ehunekoa handitu, bereziki gazteena.</p>	<p>EG.4.1.2. Gazteen adierazkortasuna eta euskararen ezagutza praktikoa handitzeko tresnak garatu.</p>
--	--	--

EUSKARAREN ULERMENA UNIBERTSALIZATZEA EUSKARAREN AUKERAK BIDERKATZEKO			
XEDE TALDEA	EKINTZA	Arduraduna	ALIATUAK
Herritarrak	<ul style="list-style-type: none"> · Zarauzko Ahotsak: Zarauzko hizkera eta ahozko ondarea jaso · Appa hi! Aplikazioa, hitanoa sustatzeko 	Udala	Badihardugu euskara elkarteak
Euskara ikasi nahi duten herritarrak	<ul style="list-style-type: none"> · Herritarrentzat euskara ikasteko bekak eta dirulaguntzak eman · Euskara ikasteko aukera berriak landu. Udal Euskaltegian Aldahitz metodologia txertatu. · Sektore jakinei zuzendutako oinarrizko ikastaroak antolatu eta materiala sortu: <ul style="list-style-type: none"> - Ostalaritzan euskararen ulermena bermatzeko baliabideak eskaini. - Ostalari eta merkatarientzako euskara-ikastaroak antolatu - Zaintzaileentzako euskara-ikastaro laburrak antolatu 	Udala, Udal Euskaltegia	Zaindu Urola Kosta (Lanbide, Merkataritza eta ostalaritza elkarteak)
Herritar etorri berriak	<ul style="list-style-type: none"> · Euskara indartzeko ikastaroak (LH eta DBHko ikasle etorri berrientzat) (AEK eta Zarauzko UE) 	Udala, Udal Euskaltegia, Immigrazio atala	Ikastetxeak
	<ul style="list-style-type: none"> · Nerabeentzako errefortzuko udalekuak · Aisa ikastaroak 		
	<ul style="list-style-type: none"> · Integraziorako egitasmoak kudeatu, haur eta gazte etorri berriak euskaraz integratzeko 	Udala, Immigrazio atala	Ikastetxeak, aisialdi taldeak, kirol taldeak
Gazteak	<ul style="list-style-type: none"> · Adierazkortasunean hobetzeko, Gu ere Bertsotan programarekin jarraitu 	Udala	Ikastetxeak

Erabilera/Elkarreragina

Zarauzko herritarren kopuruak gora egin du, baina, hala ere, eutsi egin diogu euskararen ezagutzari. Gaur egun Zarauzko herritarren %73,45ek badaki euskaraz.

Dena dela, zarauztarren tipologia aldatzen ari da, eta gero eta gutxiago erabiltzen da euskara Zarauzko etxeetan. Kaleko erabilera, berriz, %50en inguruan mantentzen da, eta, horrek adierazten digu etxe barruko erabilerak behera egin badu ere, kaleko erabilerari dagokionez, arau soziala euskararen aldekoa dela oraindik ere.

Arlo askotan euskaraz bizi den herria da oraindik ere Zarautz, baina ez dugu ahaztu behar euskara hizkuntza minorizatua dela eta globalizazioaren eraginari aurre egin behar diola egunero.

Gaur egun 40 hizkuntzatik gora hitz egiten dira Zarautzen, eta etorkizunean hizkuntza gehiago izango direla espero da, besteak beste, immigrazioak ere gora egingo duela aurreikusten delako.

Hori guztia kontuan hartuta, hainbat erronka ditugu: batetik, euskarazko eskaintza areagotzea; bestetik, herritar euskaldunak euskararen alde aktibatzea eta euskararen aldeko hautua egin dezaten sustatzea eta, horrekin batera, euskararik ez dakiten herritarrak euskarara erakartzea. Alegia, lan egingo dugu euskaldunak ahal duten guztietan euskaraz jardun dezaten; euskara ulertzen dutenak (adibidez, euskara ikasleak) elkarrizketa elebidunetan murgil daitezten; eta, azkenik, euskara ulertzen ez dutenek baliabideak eskura ditzaten ulermenera iristeko, lehenetsunak haur eta gazteetan jarrita.

Erabileran jauzia ematea dugu helburu, eta horretarako ezinbestekoa izango dira euskaldunen inplikazioa ez ezik euskara ulertzen duten herritarren eta herritar erdaldunen adostasuna eta parte hartzea ere. Herritar guztiak inplikaturako dituen hizkuntza-dinamika berriak bultzatzea izango dugu erronka, eta horretarako oinarri-oinarrizkoa izango da kultura soziolinguistiko berri bat gizarteratzea eta hizkuntzaren gaiari komunitate gisa erantzutea.

ERRONKAK	LAN ILDOAK	EKIMENAK
EE.1.Euskara eguneroko bizitzan eroso erabiltzeko berariazko estrategiak garatu.	EE 1.1. Euskararen babesguneak indartu eta berriak sortu	EE.1.1.1. Belaunaldiz belaunaldiko transmisioa indartu eta etxeko erabilerari eutsi. EE.1.1.2. Zaintza-guneetan euskararen erabileran eragin. EE.1.1.3 Euskara lan- eta zerbitzu-hizkuntza gisa orokortzeko prozesuak garatu erakunde publikoetan, eta euskaraz lan egiteko eta zerbitzua emateko aukeretan eragin erakunde pribatuetan

		<p>EE.1.1.4. Hezkuntzako, udaletako edo mankomunitateetako eta euskalgintzako eragileak elkarlanean, estrategiak diseinatu eta ekimenak garatu, tokian tokiko hizkuntza proiektuen bidez, hiztun osoak[1] sortzeko, motibazio- eta gaitasun-sistemetan eraginez.</p> <p>EE.1.1.5. Aisialdi antolatuaren eta kirolaren esparruetan eskaintza eta erabilera bermatu eta orokortu.</p> <p>EE.1.1.9. Kontsumitzaileak eta zerbitzu publikoetako erabiltzaileak ahaldundu euskara erabil dezaten.</p>
--	--	--

EUSKARAZKO ESKAINTZA ETA ERABILERA SUSTATZEA HERRIAN			
XEDE TALDEA	EKINTZA	Arduraduna	ALIATUAK
Administrazioa	<ul style="list-style-type: none"> · Zarauzko Udalaren “Erabilera Plana” gauzatu, jarraipena egin eta ebaluatu: <ul style="list-style-type: none"> - Hizkuntza-irizpideak landu eta udal langile eta hautetsien artean zabaldu - Prozedura desberdinetan hizkuntza-baldintzak ezarri (ordenantzak, kontratazioak, dirulaguntza-deialdiak, baimenak, lanpostu berriak, pleguak...) - Eragin Linguistikoaren Ebaluazioak egin, hala dagokionean - Hizkuntzaren inguruko intzidentzien jarraipena egin - (...) · Zarauzko Udala eta udal azpiegitura guztiak euskararen babesgune bihurtu (udal zerbitzuak, kiroldegia, Gaztelekua...), euskarazko eskaintza aktiboa handitzeko · Euskara ulertzeko gai diren herritarrekin elkarrizketa elebidunak sustatzeko jarraibideak udal langileekin adostu 	Udala	UEMA Herritar aktiboak eta eragileak
Arlo sozioekonomi-koa	<ul style="list-style-type: none"> · <i>Ongi Etorri Euskararen Herrira</i> egitasmoa: herritarrak eta bisitariak euskarara hurbiltzeko ekimenak antolatu eta euskarriak sortu 	UKUE, Udala, Turismo Departamentua	Merkataritza eta ostalaritza elkarteak

	<ul style="list-style-type: none"> · (Ostalaritza eta merkataritza) Saltokietan bisitak egin, merkatori eta ostalariak sentsibilizatzeko eta euskara erabil dezaten baliabideak eskaintzeko <ul style="list-style-type: none"> - Itzulpenak/zuzenketak - Dirulaguntzak - Musika/irratia - Terrazen ordenantzaren gaineko informazioa 	Udala	UEMA Merkataritza eta ostalaritza elkarteak
	<ul style="list-style-type: none"> · (Ostalaritza/merkataritza): Herritarrak aktibatu euskaraz eskatu dezaten (Eskatu eta Zerbitzatu Kafea Euskaraz), eta merkatori/ostalariei baliabideak eskaini (euskarazko hiztegiak...), euskarazko eskaintza bermatu dezaten 	Udala	UEMA, Euskara elkarteak, Merkataritza eta ostalaritza elkarteak
	<ul style="list-style-type: none"> · UKUE: diskurtsoa partekatu eta UKUEren kontratazio, dirulaguntza eta ikastaroetan hizkuntza-baldintzak txertatu ditzaten bultzatu 	UKUE, Udala	
	<ul style="list-style-type: none"> · UKUE: negozio berri bat zabaltzera doazen herritarrei eman beharreko informazioa adostu elkarrekin (diskurtso partekatua, dirulaguntzak, udalaren zerbitzuak...) 	UKUE, Udala	
Hezkuntza	<ul style="list-style-type: none"> · Ikastetxeek gurasoei zuzendutako bilerak euskaraz egiteko hizkuntza-irizpideak definitzen lagundu eta baliabideak eskaini (Telegram...). Jarduera horiek gurasoak sentsibilizatzeko ere baliatuko dira (euskarazko eremuen beharra, denon parte-hartzearen garrantzia, kohesioa...) 	Udala	UEMA Ikastetxeak

Kirol Elkartek / Aisialdia	<ul style="list-style-type: none"> · Kirol eskaintzaren neurketak egin, ikerketak 	Udala	Kirol taldeak
	<ul style="list-style-type: none"> · Eskola Kirolean euskararen erabileraren neurketak egiten jarraitu, ikerketa 	Udala	Soziolinguistika Klusterra
	<ul style="list-style-type: none"> · Kirol Klubekin, elkarteekin eta eragileekin hobetzeko lan-plana zehaztu (proiektua) 	Udala	Kirol taldeak
	<ul style="list-style-type: none"> · Aisialdi elkarteekin elkarlana (Gurutxurtu, Haur Kultur Taldea, Izartxo, Txatxarro, Txipristin...) 	Udala	Aisialdi taldeak
	<ul style="list-style-type: none"> · Dauden intzidentzien jarraipena egin 	Udala	Herritar aktiboak
	<ul style="list-style-type: none"> · Ikuspegi komunitarioa indartu kirol elkarteetan, kirol komunitateko kideen harremanak sustatzeko eta euskararen erabilera indartzeko 	Udala	Kirol elkartek
Herritarrak	<ul style="list-style-type: none"> · Herritarrak aktibatu euskararen aldeko hautua egin dezaten. Urtean zehar hainbat kanpaina/ekimen martxan jarri. 	Udala	Herriko sektore desberdinak: finantza entitateak, osasun arloa, merkataritza zentroak... Herritar aktiboak
	<ul style="list-style-type: none"> · Mintzalaguna programarekin jarraitu, eta ahal den neurrian erabiltzaile gazteagoengana iritsi 	UKUE, Udala	Euskaltegiak
	<ul style="list-style-type: none"> · Mintzanez programaren berri zabaltu herritarren artean 	UKUE, Udala	Euskaltegiak
	<ul style="list-style-type: none"> · Gidabaimenak euskaraz ateratzeko sustapena egin 	Udala	UEMA, Autoeskolak
	<ul style="list-style-type: none"> · Euskaraz kontsumitzeko kanpainak, sariketarak antolatu 	Udala	Merkataritza eta ostalaritza elkartek

	· Errenta aitopena euskaraz egiteko kanpainak bultzatu	Udala	UEMA, Aholkularitza zerbitzuak
--	--	-------	--------------------------------

Ikerketa/Sistematizazioa

Ikerketak hiru funtzio izango ditu: euskararen bilakaeraren jarraipena egitea; AROaren ardatzek eskatzen duten informazioa lortzea; eta ezagutza berriaren ikerketa-prozesuan edo amaieran sortu diren praktika onak eta arrakastatsuak sistematizatzeko estrategiak lantzea.

ERRONKA

IS.1. Ikerketa bultzatu, ardatz estrategikoetako erronka bakoitzaren nondik norakoak sakon ezagutzeko.

EKINTZAK

- Kale-erabileraren neurketak egin
- Kirol arloan beharrezkoak diren neurketak eta ikerketa lana egin: eskola kirola, etab.
- Hirigintzaren eta euskararen arteko harremanari buruzko ikerketa
- Beste hainbat datu demolinguistikoren azterketa egin (INE, Eustat, EAS...)

Komunikazioa /Hedapena

Komunikazioa indartzeko beharra ikusten dugu, herritarrak, eragile-taldeak eta komunitatea kontuan hartuta, gure jarduna eraginkorragoa izan dadin. Hedapenaren bidez, berriz, prozesuak eta emaitzak komunikatzeko estrategiak garatuko dira.

ERRONKA

KH.1. Ardatz estrategikoetako lan-ildo bakoitzak dituen xede-taldeak identifikatu eta bakoitzarentzat egokia den komunikazio estrategia aplikatu

EKINTZAK

- Udaleko komunikaziorako kanalak, sare sozialak eta herriko hedabideak erabili zabalkunderako
- Kexak eta iradokizunak jasotzeko zerbitzua ezarri, hizkuntza-eskubideak bermatzeko
- Udal barruan langileei begirako buletina zabaldu

5. KOORDINAZIOA ETA EGITURA

UDALEAN

- Euskara Departamentua: planaren diseinua, koordinazioa eta jarraipena.
- Herritarren koordinazio taldea: planaren inplementazioan parte hartuko duten departamentuak koordinatzeko gunea.
- Herritarren Informazio Batzordea: planaren jarraipen politikoa
- Lantaldeak:
 - Euskara Batzordea
 - Eskaintza aktiboaren lantaldea
 - Hizkera argiaren lantaldea

UDALERRIAN

- Euskara elkarteak. Plan Estrategikoa garatzeko aliatua, gizarte mugimenduaren ordezkaria Zarautzen.
- Euskara mahaia: herriko eragileen koordinazio-gunea, sektore desberdinak bilduko ditu.
- Mahai edo koordinazio bilera sektorialak, gai jakinak lantzeko:
 - Ikastetxeen koordinazio gunea: haur eta gazteen ahalduntzea, motibazioa eta erabilera lantzeko
 - Kirola eta aisialdia: haur eta gazteen erabilera
 - Ostalaritza eta merkataritza: 3. sektoreko erabilera
- Euskaraldiko batzordea

UDALERRIZ GAINDI

- Udal Elkarteko Euskara Batzordea. Turismoari eta lan-munduari buruzko egitasmoak
- UEMAREN Deiadarka foroak
- GFA: Udalekin foroa
- Udaltop euskara teknikarien jardunaldiak

6. ADIERAZLEAK

EUSKARAREN EZAGUTZA

Euskarak hiztun berriak behar ditu Zarautzen ere, eta Plan Estrategiko honetan ulermenaren unibertsalizazioa lortzea jarri da jomugan, euskaldun osoa izateko lehen urratsa baita eta erabileran aurrera egiteko urrats garrantzitsua.

Aldi berean, eta etorri berrien kasuan nagusiki, helburu gisa zehaztu da haur eta nerabeek euskara ikastea.

Hortaz, garrantzitsua izango da Udalak bere politikak eta baliabideak helburu lorgarri eta zehatzetara bideratzea. Beraz, bi helburu nagusi: alde batetik, elebidun hartzailleen kopurua igotzea eta, bestetik, haur eta nerabe etorri berriek euskara jakitea.

ERABILERA ETA ESKAINTZA

Datozen 10 urteetan honako hauek hartuko dira kontuan: batetik, Zarauzko **zerbitzu publiko eta pribatuek zerbitzua zein hizkuntzatan eskaintzen** duten eta, **bestetik, erabiltzaileek edo herritarrek zein hizkuntza erabiltzen duten**. Eskaintza eta erabilerak gora egiteko neurriak sustatuko ditu plan berriak, Zarauzko herri-bizitzari eragiten dioten esparru desberdinetan:

- Administrazioa: Udala, Osakidetza
- Kirola
- Aisialdia
- Merkataritza eta ostalaritza
- Finantza entitateak

Sektore horietan aurrerapen maila desberdinak izango badira ere, irudian eta komunikazioan eta erabilera orokorreko tresnen eskaintzan jar daitezke helburuak (Appa, etab.)

KUDEAKETA

Abian jarritako planaren osasun-maila egokia den ala ez jakiteko, **planaren betetze-maila** kuantitatiboari erreparatuko diogu, baita emaitza kualitatiboari ere. Urte anitzeko plana egiteko urtez urteko kudeaketa planak zehaztuko dira.

- Adierazle orokor gisa, planaren betetze-maila **% 80tik gorakoa** izatea zehaztu daiteke.

Ebaluaziorako metodologia gisa proposatzen ditugunak:

- Gogobetetze inkestak herritarren eta eragileen artean, genero ikuspegia txertatuta
- Parte-hartze datuak antolatzen diren ekimen desberdinetan, sexuaren arabera emanda
- Inplikaturako eragileen arteko gogoetak eta ebaluazio kualitatiboa

7. GENERO IKUSPEGIA

Zarauzko AROA Plan Estrategikoan genero ikuspegia kontuan izango dugu eta sistematikoki txertatuko dugu jarduera guztietan. Helburu gisa izango dugu:

- Emakumeen eta gizonen partaidetza inklusiboa lortzea
- Emakumeen eta gizonen premiak eta beharrak identifikatzea
- Genero diskriminazioak, zuzenekoak zein zeharkakoak, saihestea
- Emakumeen zein gizonezkoen parte-hartze orekatua sustatzea

Horretarako honako jarraibide hauek aplikatuko dira:

Sortzen diren talde, ekitaldi, lan-mahai eta parte hartze espazioetan

- Taldeen osaketan genero-irizpideak kontuan hartu. Partaideen artean oreka zaindu. Parte hartzen dutenen generoan erreparatu eta mintzaldiak ere orekatuak izatea sustatu, emakumeei hitza hartzea erraztuz.
- Lan-mahai, solasaldi eta jardunaldietan emakumeen parte-hartzea sustatu eta bermatu. Gizon nahiz emakumeen mintzaldietan besteen etenaldiak edo mozketak badaude, oreka zaindu.
- Datuak sexuagatik bereizi (emakumeak, gizonak eta ez bitarrak), bai datuak jasotzerakoan (galdetegietan...) bai datuak aurkezterakoan, eta dagokionean datuen interpretazioa ere aldagai hori kontuan hartuz egin.

Komunikazioa/irudia/Euskarriak

- Euskarrietan irudi eta hizkera ez sexista bermatu.
- Genero estereotipoekin lotutako espresioak saihestu.
- Erabiltzen ditugun hausnarketa, adibide, lelo, esaldi, sorkuntza-lan... eta antzekoetan emakumeen ekarpenak eta lana ere ikusarazi.
- Emakumezko erreferenteak eskaini

Kontziliazio erantzukidea eta denboraren kudeaketa

- Bilera zein bestelako ekimenen ordua zehazterakoan kontziliazio-beharrak kontuan izan (saioak, bilerak, ekintzak).
- Deialdiak garaiz egin.
- Hasiera eta amaierako ordutegiak errespetatzeko, ezarritako denborak errespetatu eta eraginkortasuna bermatu
- Errespetuzko jarrera erakutsi kontziliazio-beharren aurrean.
- Bertaratu ezin diren norbanakoen ekarpenak jasotzea ahalbidetu, horretarako pertsona horiei zuzenean galdetuz eta ekarpenak egitera gonbidatuz.

Azpiegitura eta formatua

- Saioetarako espazioa antolatzerakoan (aulkiak, mahaiak...) kontuan hartu irisgarritasuna, partaidetza eroso, gertukoa...